



<p>Matrikulatzen den LOE titulua: TRENBIDETAKO SEINALEZTAPEN- ETA TELEKOMUNIKAZIO- SISTEMETAKO ESPEZIALIZAZIO- IKASTAROA</p>		<p>Baliozkotzeko edo salbuesteko arrazoiak (175/2021 Errege Dekretuaren arabera)</p>	
5043	Trenbideetako telekomunikazio-sistemak		
5044	Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura		
5045	Trenbideko trafikoa kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak		
5046	Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko araudia		
5047	Lantokiko prestakuntza		
E313	Prestakuntza praktikoa duala enpresan		

I. eranskina

Baliozkotzeak - Salbuespenak

Pertsonak heziketa-ziklo batean **MATRIKULATU behar du** baliozkotzeak edo salbuespenak erdiesteko aukera izateko.

ESKAERA¹ pertsonak egin behar du matrikula egiten duen unean, ikastetxeko zuzendariari zuzendua. Ikastetxean bertan izango dute aurkeztu beharreko dokumentua, eta dokumentu-justifikazio ofizialaren bidez adieraziko da zein den eskaera egiteko arrazoia (gainditutako irakaskuntza, lan-esperientzia, konpetentzia-egiaztapenak).

Kontuan izan beharreko printzipio orokor eta nahitaezkoak:

1. Aldez aurretik baliozkotutako modulu bat EZ da beste baliozkotze batzuk egiteko arrazoia.
2. Ondorio akademikoetarako eta/edo profesioletarako baliokidetasun espezifikoa edo generikoa emanda duten ikasketak ezin izango dira erabili, bestalde, lanbide-moduluak baliozkotzeko.

Adibidez: pertsona batek LOGSE - Mekanizazioa titulua badu eta LOE - Mekanizazioa zikloan matrikulatzen bada, EZ zaio baliozkotzerik aplikatuko.

3. Moduluak konpetentzia-atalekiko korrespondentziaren ondorioz baliozkotzea (tituluak argitaratzen dituzten errege-dekretuen V.a eranskina) baliozkoa izango da soil-soilik egiaztapena Profesionaltasun Ziurtagiri bat edo Egiaztapen Partzial Metagarri bat gainditzearen edo Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Prozeduran izandako lorpenen ondorio bada.
4. Tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuetan argitaratutako V.b eranskinean edo, hala badagokio, V.a eranskinean definitutako korrespondentzia ez da ezein kasutan eraginkorra izango horrela egiaztatutako konpetentzia-atalen bitartez ziklo bereko edo beste ziklo batzuetako moduluak zuzenean baliozkotu ahal izateko.

Adibidez: norbaitek Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Prozeduraren bidez egiaztatutako konpetentzia-atal bat badu, moduluak baliozkotzeko aukera eranskineko taularen arabera aplikatzen da, baina ondoren EZIN da beste taula aplikatu. Bestela esanda: aldi bereko egiaztapen posible baterako EZ dira eranskineko bi taulak aplikatzen, dagokion taula baizik.

¹ Ziklo osoan edo modulu-tako batzuetan matrikulatzen dela ere, ziklo osoarekin erlazionatuta izan litzakeen baliozkotzeak edo salbuespenak eska ditzake, matrikula egitea baita eskakizun bakarra.

	Pertsonak badu...	EM/GM - LOE ziklo bateko moduluak BALIOZKOTZEKO tratamendu orokorra
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>BAI, araudiak baliozkotzeak aintzat hartzen ditu -osoak edo partzialak- pertsonen LOE lanbide-moduluak gaindituta dituztenean (ikasketa ofizialen ziurtagirien bidez frogatuak) eta beste LOE ziklo batean matrikulatzen direnean.</p> <p>Oharra: kode eta izen bera duen modulu bat denean EZ da baliozkotzea izango balitz bezala tratatuko; matrikulatzen den zikloan lortu duen kalifikazioa kasuan kasuko moduluari aplikatuko zaio.</p>
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>BAI, araudiak baliozkotzeak aintzat hartzen ditu –osoak edo partzialak– pertsonen LOGSE lanbide-moduluak gaindituta dituztenean (ikasketa ofizialen ziurtagirien bidez frogatuak) eta beste LOE ziklo batean matrikulatzen direnean.</p> <p>Oharra: gogoan izan: daukan eta aurkezten duen LOGSE heziketa-ziklo osoak matrikulatu nahi duen LOE zikloarekin baliokidetasuna duenean, EZ da baliozkotzerik ematen.</p>
C	LOGSE aurreko ikasketak	<p>Oro har, teknikari laguntzailearen (LHI) edo teknikari espezialistaren (LHII) tituluak dituzten pertsonak dira. Titulu horiek EZ dute zuzenean baliozkotzerik ematen (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).</p>
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiatzapen Partzial Metagarriak	<p>Profesionaltasun Ziurtagirik ofizialki egiaztatzen dituzte haiek osatzen dituzten kompetentzia-atalak. Horrela egiaztatutako kompetentzia-atalek moduluen baliozkotzeak ahalbidetzen dituzte, LOE tituluaren errege-dekretuetako bakoitzaren (V A) eranskina aplikatzearen ondorioz. Egiatzapen Partzial Metagarriek antzeko tratamendua dute.</p> <p>Oharra: komeni da Profesionaltasun Ziurtagiriaren edo Egiatzapen Partzial Metagarriaren ofizialtasuna baieztatzea. 34/2008 Errege Dekretua argitaratu aurreko Profesionaltasun Ziurtagirik EZ dute zuzenean baliozkotzerik ematen.</p>
E	Unibertsitate Ikasketak	<p>Gaur egun EZ da aintzat hartzen zuzenean heziketa-zikloetako lanbide-moduluen baliozkotzerik edo salbuespenik.</p> <p>Dena dela, baliozkotzeak eska daitezke ikastetxeko zuzendariaren bitartez, Ministerioak ebatz ditzan (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).</p> <p>Oharra: salbuespen bat ematen da atzerriko hizkuntzarekin (ingeleza) erlazionatutako moduluetarako, horientzat modulu zehatzen baliozkotzeren bat eman baitaiteke unibertsitate-titulu jakin batzuen bidez (ikusi ingeleseko moduluei dagozkien taulak). (Ikus IV., V., VI., VII. eta VIII. eranskinak).</p>
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	<p>Zuzenean EZ da bidezkoa ezer baliozkotzea.</p> <p>Atzerriko tituluetarako prozedura zehatz bat dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Homologazioa, titulu osoa ematen denean, edo - Baliozkotzea, aurkeztutako atzerriko titulu bati dagokionez, eskatzen den zikloko lanbide-moduluen baliozkotzeak ematen direnean. <p>Emaitzei egiaztatutako gisa ematen zaie dokumentu-euskarria. Egiastatutako horiek BADITUZTE ondorioak LOE heziketa-zikloetan sartzean, matrikulatzean eta moduluen baliozkotzeak eskatzean.</p>
G	Lanbide Kompetentziak Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Prozedura	<p>Lanbide Kompetentziak Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Prozedurara aurkeztearen emaitza gisa lortzen diren ziurtagirik kompetentzia-atalen balioa eta ondorioak dituzte. Horrenbestez, horrela egiaztatutako kompetentzia-atalek moduluen baliozkotzeak ahalbidetzen dituzte LOE heziketa-ziklo batean “D” ataleko prozedura aplikatuta.</p>

H**Lan Esperientzia**

Lantokiko Prestakuntza modulua **SALBUESTEKO** arrazoi izan daiteke.

Beste ebidentzia batzuekin osatuta, moduluren baten baliozkotzea ahalbidetu ahal izango du –zehazki, LPO, EES eta Ingeles Teknikoa (**kasu honetan salbuespena da**).

ALTERNANTZIA DUALEKO eskaintzan Lantokiko Prestakuntza modulua **SALBUETSITZAT** jotzen da.

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	EM/GM - LOE LANBIDE MODULU ESPEZIFIKOAK (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	Taulan (LOE/Espezifikoak-LOE) ikus daiteke ezaugarri hauetako zein modulutan eska daitekeen matrikulatzen den LOE zikloan baliozkotzea, baldin eta lanbide-modulu batzuk gaindituta baditu edo, hala badagokio, beste LOE heziketa-ziklo oso bat gainditu badu. Oharra: kode eta izen bera duen modulu bat denean EZ da baliozkotzea izango balitz bezala tratatuko. Matrikulatzen den zikloan lortu duen kalifikazioa kasuan kasuko moduluari aplikatuko zaio.	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	Taulan (LOE/Espezifikoak-LOGSE, titulu bakoitzaren errege-dekretuaren III. eranskinaren arabera prestatua) ikus daiteke ezaugarri hauetako zein modulu izango dituen baliozkotuta matrikulatzen den LOE zikloan, baldin eta LOGSE lanbide-moduluak osorik edo partzialki gaindituta baditu. Oharra: gogoan izan horretarako ezinbestekoa dela osorik eduki dezakeen LOGSE moduluak baliokidetasunik ez izatea matrikulatu nahi duen LOE moduluarekin.	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ zaio arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu mota honi (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiatzapen Partzial Metagarriak	Titulu bakoitzari dagozkion tauletan, kompetentzia-atal jakin batzuk egiaztatzean baliozkotuak izango dituen ezaugarri horietako lanbide-moduluak ikusi ahal izango dira.	
E	Unibertsitate Ikasketak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik ahalbidetzen, non eta ezarritako prozeduraren bidez eskatzen ez diren (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua). Oharra: gogoan izan salbuespenen bat dagoela atzerriko hizkuntzen moduluen kasuan.	
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	Zuzenean EZ diote arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu mota honi. Gogoan izan kasu hauetarako prozedura zehatz bat dagoela. Izan ere, Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu da atzerriko titulu bat Lanbide Heziketako egungo tituluei dagokienez homologatzea/baliozkotzea eskatzeko.	
G	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Prozedura	Hirugarren taula (LOE/Espezifikoak-KA) erabiltzen da. Horren bitartez ikus daiteke, kompetentzia-atal jakin batzuk egiaztatzearen emaitza gisa, matrikulatzean zein lanbide-modulu izan ditzakeen baliozkotuta “D” ataleko prozedura bera.	
H	Lan Esperientzia	EZ zaio arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu mota honi.	

II. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA (LPO) EM/GM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak		<p>Edozein familia eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erdi edo Goi mailako LOE Heziketa Zikloren batean Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua gaindituta badu • 1436 Giza faktoreak modulua gaindituta badu • Hurrengo ziklo osoa baldin badu: <ul style="list-style-type: none"> – Aireontzien sistema elektronikoak eta abionikoak mantentzeko goi-mailako teknikaria (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo – Turbina-motorreko helikopteroen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo – Pistoi-motorreko helikopteroen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo – Turbina-motorreko hegazkinen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo – Pistoi-motorreko hegazkinen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak)
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak		<p>Edozein familia eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein lanbide-arlo eta mailatako LOGSE ziklo batean Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua gaindituta badu, eta Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarritzko mailako ziurtagiria baldin badu, edozein lanbide-arlo eta mailatarako baliozkotzen da. • Arrisku Profesionalen Prebentzioa (Produkzio Zerbitzua eta Mantentzea) goi-mailako ziklo osoa gaindituta badu, edozein lanbide-arlo eta mailatarako baliozkotzen da.
C	LOGSE aurreko ikasketak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiatzapen Partzial Metagarriak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
E	Unibertsitate ikasketak		Zuzenean EZ dute baliozkotzerik ahalbidetzen, non eta ezarritako prozeduraren bidez eskatzen ez diren (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak		Zuzenean EZ dute arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu honetarako.
G	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Prozedura		Tituluan jasotako konpetentzia-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu (1224/2009 Errege Dekretua), urtebeteko lan-esperientzia badu eta prebentzio-jardueraren oinarritzko mailako funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntza egiaztatuta baldin badu, LPO modulua baliozkotuta izango du kasuan kasuko ziklorako.
H	Lan Esperientzia		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako..

III. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	ENPLEGAGARRITASUNERAKO IBILBIDE PERTSONALA I (2/2006 Legearen eta 500/2024 Errege Dekretuaren babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>Edozein familia eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erdi edo Goi mailako LOE Heziketa Zikloren batean Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua gaindituta badu • 1436 Giza faktoreak modulua gaindituta badu • Hurrengo ziklo osoa baldin badu: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Aireontzien sistema elektronikoak eta abionikoak mantentzeko goi-mailako teknikaria</i> (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo - <i>Turbina-motorreko helikopteroen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria</i> (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo - <i>Pistoi-motorreko helikopteroen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria</i> (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo - <i>Turbina-motorreko hegazkinen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria</i> (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak), edo - <i>Pistoi-motorreko hegazkinen mantentze aeromekanikoko goi-mailako teknikaria</i> (Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak) 	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>Edozein familia eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein lanbide-arlo eta mailatako LOGSE ziklo batean Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua gaindituta badu, eta Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarrizko mailako ziurtagiria baldin badu, edozein lanbide-arlo eta mailatarako baliozkotzen da. • Arrisku Profesionalen Prebentzioa (Produkzio Zerbitzua eta Mantentzea) goi-mailako ziklo osoa gaindituta badu, edozein lanbide-arlo eta mailatarako baliozkotzen da. 	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
E	Unibertsitate ikasketak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik ahalbidetzen, non eta ezarritako prozeduraren bidez eskatzen ez diren (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).	
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	Zuzenean EZ dute arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu honetarako.	
G	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Prozedura	Tituluan jasotako konpetentzia-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu (1224/2009 Errege Dekretua), urtebeteko lan-esperientzia badu eta prebentzio-jardueraren oinarrizko mailako funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntza egiaztatuta baldin badu, LPO modulua baliozkotuta izango du kasuan kasuko ziklorako.	
H	Lan Esperientzia	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako..	

IV. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA (EES) EM/GM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>Edozein lanbide-arlo eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein lanbide-arlo eta mailatako LOE ziklo batean Enpresa eta Ekimen Sortzailea modulua gaindituta badu. • Administrazio Kudeaketa erdi-mailako ziklo osoa (Administrazioa eta Kudeaketa) edo Administrazioa eta Finantzak goi-mailako ziklo osoa (Administrazioa eta Kudeaketa) gaindituta badu. • 1606 Elikadura-negoio txikiak eratzea modulua gaindituta badu. • 1227 Saltoki txiki baten kudeaketa modulua gaindituta badu. 	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<p>Edozein lanbide-arlo eta mailatarako BALIOZKOTZEN da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Modulu hau baldin badu: <ul style="list-style-type: none"> – <i>Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea</i> LOGSEren edozein ziklo – <i>Saltoki txikien administrazioa eta kudeaketa</i> EM: Merkataritza (Merkataritza eta Marketina) – <i>Nekazaritzako familia-ustiapenen antolamendua eta kudeaketa</i> EM: Nekazaritza Ustiategi Estentsiboak EM: Nekazaritza Ustiategi Intentsiboak EM: Abeltzaintza Ustiategiak EM: Lorezaintzak EM: Baso Lanetako eta Natura Ingurunearen Zaintzak – <i>Astaldiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa</i> GM: Gizarte eta Kultura Animazioa (Gizarte eta Kultura Zerbitzuak) GM: Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioa (Gorputz eta Kirol Ekintzak) GM: Animazio Turistikoa (Ostalaritza eta Turismoa) – <i>Bidaia agentzien antolamendua eta kontrola</i> GM: Bidaia Agentziak (Ostalaritza eta Turismoa) – <i>Jatetxeen administrazioa</i> GM: Jatetxe Arloa (Ostalaritza eta Turismoa) – <i>Ortoprotesikako kabinete edo unitateen antolamendua eta kudeaketa</i> GM: Ortoprotesika (Osasungintza) – Hertz protesiak kabinete edo unitateen antolamendua, administrazioa eta kudeaketa GM: Hertz Protesiak (Osasungintza) – <i>Audioprotesi kabineteen administrazioa eta kudeaketa</i> GM: Audioprotesiak (Osasungintza) – Nekazaritza enpresen antolamendua eta kudeaketa GM: Natura eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamendua (Nekazaritza eta Abere Hazkuntza) GM: Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamendua (Nekazaritza eta Abere Hazkuntza) • Hurrengo ziklo osoa baldin badu: <ul style="list-style-type: none"> EM: Administrazio Kudeaketa (Administrazioa) GM: Administrazioa eta Finantzak (Administrazioa) 	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako (ikus azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).	

D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
E	Unibertsitate Ikasketak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik ahalbidetzen, non eta ezarritako prozeduraren bidez eskatzen ez diren (ikusi azaroaren 8ko EFP/1210/2021 Agindua).
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	Zuzenean EZ dute arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu honetarako.
G	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	Zuzenean EZ dute arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu honetarako. Erne: Zenbait titulutan , profileko konpetentzia-unitate GUZTIAK akreditatuta edukiz gero (uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera) eta, gainera, EAEn tituluetak bakoitza arautzen duten dekretuetan ezarritako eskakizunak betez gero (9. artikulua, erdi-mailako zikloen kasuan, eta, 10. artikulua, goi-mailako zikloen kasuan), Enpresa eta Ekimen Sortzailearen modulua baliozkotzea eskatu ahal izango da.
H	Lan Esperientzia	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.

V. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	MP 0156 INGELESA EM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> • 0179 Ingelesa modulua gaindituta badago. 	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko Hizkuntza modulua egin eta gainditu badu, ingelesa denean eta 65 orduko iraupena duenean, tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuen arabera. • Atzerriko Hizkuntza edo Autonomia Erkidegokoa modulua (ingelesa denean) egin eta gainditu badu. • Goi-mailako heziketa-zikloetako Atzerriko Hizkuntzako lanbide-moduluak, horien izena edozein dela ere, baldin eta hizkuntza baliozkotu nahi den bera bada. 	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	BAI, baldin eta dagokion konpetentzia-atalarekin lotutako prestakuntza-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.	
E	Hizkuntzen Irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> • Ingeleseko Oinarrizko Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). • Ingeleseko Tarteko Mailako ziurtagiria (B1), Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). • Ingeleseko Gaitasun Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). • Ingeleseko Maila Aurreratuko ziurtagiria (B2) edo mailaz goragokoa, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). 	
F	Unibertsitate Ikasketak	<ul style="list-style-type: none"> • Graduko titulua edo baliokidea, Ingeles Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (ingelesa). 	
G	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	Zuzenean EZ dute arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik ahalbidetzen modulu honetarako.	
H	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	BAI, baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.	
I	Lan Esperientzia	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	

VI. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	MP 0179 INGELESA GM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	Oro har, EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako. Gogoan izan egin izanaren ondorioz gaindituta izan dezakeela. Beste ziklo batean matrikulatuz gero, moduluko nota aplikatzen da.	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko Hizkuntza (ingeleza) modulua egin eta gainditu badu. • Atzerriko Hizkuntza modulua egin eta gainditu badu, ingeleza denean eta 90 orduko iraupena duenean, tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuen arabera. • Atzerriko Hizkuntza Nazioarteko Merkataritzan modulua egin eta gainditu badu, ingeleza denean. 	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	BAI , baldin eta dagokion konpetentzia-atalarekin lotutako prestakuntza-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.	
E	Hizkuntzen Irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> • Ingeleseko Gaitasun Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). • Ingeleseko Maila Aurreratuko ziurtagiria (B2) edo mailaz goragokoa, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). 	
F	Unibertsitate Ikasketak	<ul style="list-style-type: none"> • Graduko titulua edo baliokidea, Ingeles Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (ingeleza). 	
G	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
H	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	BAI , baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.	
I	Lan Esperientzia	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	

VII. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	MP 0180 ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA GM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	Oro har, EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako. Gogoan izan egin izanaren ondorioz gaindituta izan dezakeela. Beste ziklo batean matrikulatuz gero, moduluko nota aplikatzen da.	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> Goi-mailako zikloko Atzerriko Bigarren Hizkuntza modulua egin eta gainditu badu, baldin eta hizkuntza baliozkotu nahi den bera bada. 	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	BAI , baldin eta dagokion konpetentzia-atalarekin lotutako prestakuntza-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.	
E	Hizkuntzen Irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko edo Gaitasun Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa), baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntza berekoa. Tarteko Mailako ziurtagiria (B1) edo mailaz goragokoa, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa), baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntza berekoa. 	
F	Unibertsitate Ikasketak	<ul style="list-style-type: none"> Graduko titulua edo baliokidea, Ingeles Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntza berekoa). 	
G	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
H	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	BAI , baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.	
I	Lan Esperientzia	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	

VIII. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	E100 INGELES TEKNIKOA EM - LOE (erkidegokoa) (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> E200 modulua gaindituta baldin badu. <p>Entzuteko desgaitasuneko kasuetan salbuespena eska daiteke; salbuespena partziala edo osoa izan daiteke.</p> <p>Gogoan izan beste ziklo bateko E100 modulu bat gaindituta izanez gero, nota aplikatzen dela, ez dela baliozkotzen.</p>	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
E	Hizkuntzen irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> Ingeleseko Oinarrizko Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). Ingeleseko Tarteko Mailako ziurtagiria (B1), Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). Ingeleseko Gaitasun Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). Ingeleseko Maila Aurreratuko ziurtagiria (B2) edo mailaz goragokoa, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). 	
F	Unibertsitate ikasketak	<ul style="list-style-type: none"> Graduko titulua edo baliokidea, Ingeles Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (ingelesa). 	
G	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
H	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Tituluaren profilean jasotako konpetentzia-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu (1224/2009 Errege Dekretua) eta hiru urteko lan-esperientzia badu. 	
I	Lan Esperientzia	<p>SALBUETSITA egon daiteke, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> 21 urtetik gorakoen kasuan, kasuan kasuko 3 urteko lan-esperientzia badute eta, heziketa-zikloaren iraupenaren erdia osatzeko beste lanbide-modulu gaindituta edo konpetentzia-atalak egiaztatuta, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak adierazitako prozeduraren bidez edo enplegurako lanbide-heziketako sistemaren bidez. 45 urte baino gehiago baditu. 	

IX. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	E200 INGELES TEKNIKOA GM - LOE (erkidegokoa) (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	Oro har, EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako. Gogoan izan beste ziklo bateko E200 modulu bat gaindituta izanez gero, nota aplikatzen dela, ez dela baliozkotzen. Entzuteko desgaitasuneko kasuetan salbuespena eska daiteke; salbuespena partziala edo osoa izan daiteke.	
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
C	LOGSE aurreko ikasketak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
E	Hizkuntzen Irakaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> Ingeleseko Gaitasun Mailako ziurtagiria, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). Ingeleseko Maila Aurreratuko ziurtagiria (B2) edo mailaz goragokoa, Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa). 	
F	Unibertsitate Ikasketak	<ul style="list-style-type: none"> Graduko titulua edo baliokidea, Ingeles Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (ingelesa). 	
G	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak	EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.	
H	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura	<ul style="list-style-type: none"> Tituluaren profileen jasotako konpetentzia-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu (1224/2009 Errege Dekretua) eta hiru urteko lan-esperientzia badu. 	
I	Lan Esperientzia	<p>SALBUETSITA egon daiteke, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> 21 urtetik gorakoen kasuan, kasuan kasuko 3 urteko lan-esperientzia badute eta, heziketa-zikloaren iraupenaren erdia osatzeko beste lanbide-modulu gaindituta edo konpetentzia-atalak egiaztatuta, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak adierazitako prozeduraren bidez edo enplegurako lanbide-heziketako sistemaren bidez. 45 urte baino gehiago baditu. 	

X. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	LANTOKIKO PRESTAKUNTZA EM/GM - LOE (2/2006 Legearen babesean)
A	LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
B	LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak		Oro har, EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
C	LOGSE aurreko ikasketak		Oro har, EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
D	Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarriak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
E	Unibertsitate Ikasketak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
F	Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
G	Lanbide Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Prozedura		EZ da arrazoi horren ondoriozko baliozkotzerik aplikatzen modulu honetarako.
H	Lan Esperientzia		BAI , kasu honetan partzialki edo osorik salbuesteko arrazoia da, baldin eta laneko esperientzia (dokumentazio ofizialarekin frogatua) gutxienez lanaldi osoko urtebetekoa bada eta matrikulatzen den tituluaren profilarakin erlazionatuta badago. Interesdunak eskatuta, ikastetxeko zuzendariak emango du, ezarritako arauen arabera ebatzi ondoren.

XI. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak	KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTEA I eta II OLH (LOE) (8/2013 Legearen babesean, LOMCE)
A	OLH zikloetako (LOE) irakaskuntzak gainditu ditu.		Bai, Komunikazioa eta Gizartea I eta II moduluak gaindituta, Oinarrizko Lanbide Heziketako edozein heziketa-ziklotan.
B	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko irakaskuntzak gainditu ditu.		Bai, Komunikazio eta gizarte arloko nahitaezko heziketa-zikloak gaindituta, eta, horretaz gain, atzerriko hizkuntzaren modulu bat gaindituta, KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTEA I lanbide-modulua baliozkotu ahalko zaie.
C	> 17 urte eta DBHko laugarren maila.		Bai, Komunikazioa eta Gizarte Zientzien blokean sartutako DBHko laugarren mailako ikasgaiak , edozein dela modalitatea, gaindituta.

XII. eranskina

	Pertsonak badu...	Hauek baliozkotzeko aukerak ZIENTZIA APLIKATUAK I eta II OLH (LOE) (8/2013 Legearen babesean, LOMCE)
A	OLH zikloetako (LOE) irakaskuntzak gainditu ditu.	Bai, Zientzia aplikatuak I eta II moduluak gaindituta, Oinarrizko Lanbide Heziketako edozein heziketa-ziklotan.
B	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko irakaskuntzak gainditu ditu.	Bai, Zientzia eta Teknologia arloko nahitaezko heziketa-zikloak gaindituta, ZIENTZIA APLIKATUAK I lanbide-modulua baliozkotu ahalko zaie.
C	> 17 urte eta DBHko laugarren maila.	Bai , honako betekizunetako bat betetzen badu: <ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza Akademikoetara Bideratutako Matematika, Biologia eta Geologia edo Fisika eta Kimika ikasgaiak gainditzea. • Irakaskuntza Aplikatueta Bideratutako Matematika eta Jarduera Profesionaleko Zientzia Aplikatuak ikasgaiak gainditzea.